



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko urriaren 10a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
-NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztua.

Osoko zuzenketa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua itzultzeko.

Zioak: Gobernuak aurkeztutako proiektu honek ez du bermatzen administrazio publikoek finantza baliabide aski izatea, eta, era berean diru-bilketarako duten ahalmenaren aurka doa; horren ondorioz, administrazioek politika publikoak finantzatzeko baliabideak eskura izateko gaitasunari kalte larria egiten dio, zerbitzu publikoekin eta gizarte ongizatearekin zerikusia duten politika publikoek dagokienez bereziki.

2. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Aurkeztutako proiektuari buruz esan daitekeen lehen gauza hau da: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aldaketa sakona egiteko aukera izanda, hura gaurkotzera mugatzen dela, zergan islatzen ez diren inflazioaren lerradurak konpentsatze aldera. Orain arte, aldaketa horiek zergak aldatzeko foru legeen bidez egiten ziren –aurrekontuekin batera doazen tributu-neurriei buruzkoak ere deiturikoak—. Oraingoan, aldiz, izapidetze horretatik atera dira. Hori gure alderdiaren betiko eskaera izan da, beti eskatu izan baitu zergei buruzko eztabaida bereizirik egitea. Hala ere, ez dugu uste xede hori lortuko denik; izan ere, aldaketa horrekin batera beharrezkoa da beste batzuk egitea beste zerga batzuetan, hala nola sozietateen gaineko zergan, Nafarroako enpresen egoera ez dadin izan erregimen komunaren mendean daudenena baino okerragoa.

Beraz, proiektu honek ez dakar zergaren aldaketa sakonik eta, gainera, ez du beste zerga batzuetan aldaketarik egiten, erregimen komunean sortu den egoerara egokitzeko.

Proiektuak planteatzen duen lehen xedea da herritarren errenta erabilgarria handitzea, aurrezki eta kontsumoa handitzea lortzeko. Bistakoa dirudi gaur egungo interes tipoekin kontsumoa aurrezki baino gehiago bultzatuko dela, eta horrek inflazio tasa eta kanpoko desoreka gehiago handitzea ekar dezake.

Bigarren xedea da inflazioaren eraginez presio fiskalaren hazkundearen ondorioak, hau da, "hotzeko gehikortasuna", saihestea. Hori ez da lortuko proiektu honekin, motz geratzen baita proposaturiko gehikuntzei dagokionez. Halaber, errenta handienei mesede egiten jarraitzen du, zerga-oinarriaren murriztapentzat hartzen baitira, kuotan sartu eta zergaren tarifatik kanpora atera ordez, Gorte Nagusietan izapidetzen ari den proiektuan proposatu den moduan.

Hirugarren xede gisa, hainbat talderen tributuegoera aldatzea aipatzen da. Alderdi sozialistaren eskaera etengabea izan den xede hori proiektuan islatzen da, Menpekotasunari buruzko Legearen bidez abian jarriko diren neurriak biltzen baititu. Ezgaitasunak dituzten pertsonen egoera fiskala, menpekotasun egoeran daudenena eta alargun pentsioak jasotzen dituztenena hobetzen da, batez ere azken horiena, azkenenean, eskatzen ari garen moduan, jasotzen dituzten pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzen badira. Hala ere, foru lege proiektu honen arabera, onura handiagoa izanen da errenta altuenentzat, zerga-oinarriaren murriztapenak mantentzen baitira.

Laugarren xedea zergaren gehikortasuna mantentzea eta, are gehiago, handitzea, da. Gehikortasuna mantentzen da zergaren ekitatea hobetu gabe; izan ere, zerga-oinarriaren murriztapenak mantentzen dira.

Azkenik, zerga-bilketako nahikotasuna mantentzeko xedea ezartzen da. Nahikotasuna dirusararren bidetik edo gastuenetik lor daiteke, eta gu ziur gaude gaur egungo gobernuak edozein kasutan ere nahikotasuna lortuko lukeela PFEZa aldatzeko beste edozein proposamen izanda ere.

Erreformaren gutxi beherako kostua 71 milioi eurokoa da (alargun pentsioen parekatzea kontuan hartu gabe). Horietatik 46,6 milioi baino gehiago 30.000 euro baino gutxiagoko likidazio oinarri ekozten zaizkie –zerga aitortpena egiten dutenen %93–; horrenbestez, gainerako 24,6 milioiak zerga aitortpena egiten dutenen %7ri ekozten zaizkie. Argi dago nortzuk diren erreforma honen onuradunak.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako

osoko zuzenketa. Proiektua Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Nafarroako Gobernuak tarifa-tarteak jaistea proposatu du beste behin ere, eta, horrela, gehikortasunean aurrera egin beharrean, zuzeneko zergak jaisteko joerari eutsi zaio, halako moduz non zerga horiek bidezkoagoak bihurtzeko aukera galdu baita. 2003an zortzi tarifa-tarte bazeuden, orain, aldaketa honekin, sei izanen dira, eta, horrela, zuzeneko zergen gehikortasuna nabarmen gutxituko da.

Gure parlamentu-taldeak bere egiten ez duen ikusmolde ekonomiko baten isla dira, baina horrez gain, datuak eurak ari dira erakusten politika hori ez dela gauza Nafarroako herritarren egiazko beharrez erantzuteko. Izan ere, lege proiektu honekin aurreikus daiteke zuzeneko zergen bidez bildutako dirua gutxiago izanen dela, eta begi bistakoa da zerbitzu publiko garrantzitsuetan baliabideak jarri behar direla, hala nola osasunean, hezkuntzan eta alternatiba industrialen gauzatzean.

Berriz ere errentarik altuenak dituztenentzat da mesedegarrien Gobernuaren proposamen hau; horien portzentajeak ehuneko 2 egiten du behera, eta arinduenak, lehen batean, presio ekonomiko txikiena dutenak dira. Lau urtean, bost puntu hobetu zaie egoera (%47tik %42ra).

Errenta ertainak dituztenak, bestalde, zerga ahalegin handiagoa egin beharko dute, eta, horrela, nahiz eta esan "presio fiskala arindu eta familien egoera hobetuko dela," baieztapen hori zalantzarria gertatzen da erabat. Argi ikus daiteke nola dirusarrera ertainen tarteetan dauden herritarren presio fiskalaren gorako joerari eusten zaion. Proiektuak tarifaren deflaktazio automatikorik ere ez du aurrikusi, presio fiskala sistematikoki orekatzeko.

Argi dago zeharkako zergek gora egin dutela; zeharkako zergek berdin eragiten diete herritar guztiei, eta zuzenekoek, berriz, herritar bakoitzari duen errenta-mailaren arabera eragiten diote. Hau da, zeharkako dirusarrerei ematen ari zaie nagusitasuna zuzeneko dirusarrerei eman beharrean, eta ez da inongo ekintzarik gauzatzen aberastasunaren banaketa eta ezberdintasunen desagertzea sustatzeko. Horrenbestez, frogatuta dago tributue proposamen atzerakoia dela hau; izan ere, sistema fiskaletan aurrerakoitasun gutxiene duena da, dirusarrera handienak dituenari gutxiago ordainarazten baitio eta kenkariak zerga-oinarrian ezartzen baititu zerga-kuotan ezarri beharrean. Zuzeneko eta zeharkako zergapetzearen arteko erlazioa %36-%48 izan daiteke, eta parlamentu-talde hau ez dator bat joera horrekin.

Egia da behin eta berriz ezezkoa jaso ondotik, proiektu honetan Gobernuak, hein batean, beharrezko dauden zenbait talderen egoera hobetu behar dela aitortu duela. Hala ere, oro har, tributurak aldatzeko proiektuak ez ditu ahal den gutzian baliatzen gure tributurak, ez dute helburu gizarte zuzenago eta orekatuagoa lortzea; gainera, bere bizkar du kanpoko enpresek inbertsioak egin eta aberastasuna sortzearen menpekotasun ekonomiko estrukturalaren zama.

Planteamenduok gure pentsamolde sozialen aurka egiten dute erabat, bai eta auto-gobernuaren irismenaren aurka eta autogobernu hori gure erkidegoaren garapen zuzenaren eta aurrerapenaren zerbitzuan jartzeko aukeraren aurka ere, uste baitugu aurrera egin behar dela gizarte-ongizatean eta gizarte-justizian. Horiek horrela, osoko zuzenketa hau aurkeztu dugu eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea proposatzen dugu.

4. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Zenbait adituk adierazi duten moduan, proposaturiko testuak ez die heltzen PFEZaren araudiaren aldaketa sakona egitekotan ezinbestean kontuan hartu behar diren gaiei, hala nola aurrezkiaren tratamendu fiskalari.

Bestalde, legebiltzarrera igorritako lege proiektuak berak zorrotasun falta adierazten du; izan ere, bere artikuluko bakarreko lehen idatz-zatian gaur egun Gorte Nagusietan izapidetzen ari den lege baten bidez arautzen ari den gai bat aipatzen da, proiektuan bertan aitortzen denez; hain zuzen, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko Legea.

Are gehiago, gai hori asko eztabaidatu dute Gorteetako parlamentu-talde batzuek, autonomia erkidegoen eskumenetan esku-sartzea izan daitekeelako.

Gaia larriagoa da kontuan hartzen badugu Nafarroako Gobernuak berak, azkarregi, gai hori buruzko beste proiektu bat onetsi duela.

Hori guztia dela eta, zuzenketa arau horiek onetsi arte itxarotea izanen litzateke, arau horiekin zerikusia duen PFEZaren aldaketa egiteko.

Gaiaren muinari dagokionez, lege proiektuak ez du bermatzen –ez eta ebaluatzen ere– foru administrazioak finantza baliabide aski izatea. Halaber, proiektuan ez da prospektibarik egiten, eta ez da aztertzen zerga zuzenen eta zeharkako-arte erlazioaren bilakaera. Eta, are gehiago, lege proiektuak dirusarrera handiak eta ondare garrantzitsua dituzten pertsonen karga fiskala arintzea dakar, baina arintze hori txikiagoa da dirusarrera ertain eta txikiak dituztenentzat.

ARTIKULUEI

AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren bosgarren eta seigarren idatz-zatiak kentzeko.

Zioak: Idatz-zati horiek 55. bis eta 55. ter artikuluekin ordeztu dituzten beste zuzenketa batzuekin bat.

2. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 6. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege honetako 55. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 7. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idatz-zati hori kenduz, gaur egun indarrean dagoen taulak bere horretan jarraitzea nahi dugu, proiektuan proposatutakoa baino bidezkoagoa iruditzen baitzaigu.

4. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren lehenengo idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 7. artikuluko s) letrari idatz-zati bat gehitzen dio.

Hona lehenengo idatz-zatiak izanen duen testua:

“Bat. 7. artikuluari s) letra gehitu zaio.

s) Zerbitzuari atxikiriko prestazio ekonomiko publikoak, laguntza familiar eta modu pertsonalizatuan jasotzekoak, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko legetik heldu direnak.”

Zioak: Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko Lege proiektuaren tramitazioan zenbait aldaketa izan dira, eta PFEZeko salbuespenak egokitu egin behar dira lege proiektu horretara.

Lege proiektu horretan ageri diren prestazioetan, honakoak nabarmentzen dira: batetik, laguntza familiar jasotzeko prestazio ekonomikoak, hau da, onuradunak laguntza etxean bertan eta familiararen bitartez jaso dezan, eta, bestetik, laguntza pertsonalizaturako prestazio ekonomikoak, prestazio horiekin laguntza pertsonalizatua kontratatu ahal izan dezan, onuradunak bizimodu autonomoa izan dezan, bai eta hezkuntza eta lana izan ahal ditzan ere.

Bi prestazio ekonomiko publiko horiek, hau da, laguntza familiar eta baita modu pertsonalizatuan jasotzekoak, PFEZetik salbuetsita geratuko dira.

5. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren lehenengo idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“s). Zerbitzurako prestazio ekonomiko publikoak, familiakoak zaindu eta...”

Zioak: “Atxikiriko” hitzak ez du zehaztasun juridikorik.

6. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

“Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko legea” izendapena edo horren aipamena aldatzeko zuzenketa; artikulu bakarraren lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren idatz-zatian agertzen da.

Proiektuan “legea” agertzen den guztietan, “araudi” aipatu behar da.

Zioak: Proiektuan aipatutako legea, Gorte Nagusietan izapidetzen aritzeaz gain, eta hala aitortzen da proiektuaren hitzaurrean, Estatuko lege bat da; Nafarroak, ordea, gizarte ongizatearen arloan eskumen osoak ditu, eta Kongresuko zenbait indar politikok kezka agertu dute. Are gehiago, arlo horretan, hedabideen bidez Nafarroako Gobernuaren ekimen bat iragarri da, eta, beraz, aipamen hori aldatu beharra dago.

7. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren hirugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 5. artikuluko b) letra aldatzen du.

Hona hirugarren idatz-zatiak izanen duen testua:

“Hiru. 39. artikuluko 5. idatz-zatiko b) letra aldatu da.

b) Hirurogeita bost urtetik goitikoek edo menpekotasun larriko egoeran nahiz menpekotasun handikoan dauden pertsonen ohiko etxebizitza eskualdatzen dutenean, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko legean xedatzen denaren arabera.”

Zioak: Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko Lege proiektuan hiru menpekotasun mota bereizten ditu: neurrizkoa, larria eta menpekotasun handia. Proposatutako aldaketaren bidez, PFEZari buruzko Foru Legeko 39.5.b) artikuluan ezarritako onura fiskala menpekotasun larrian dauden pertsonen ere zabaltzen zaie.

8. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa. 4. idatz-zati horren bidez, 4. zenbakia gehitzen zaio Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55. artikuluko 1. idatz-zatiari.

Zioak: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuko lau lehenengo idatz-zatiek, batetik, menpekotasunean dauden pertsonen zerga egoera argitzen dute, eta, bestetik, zerga arloan laguntzen die, egoera behartsuan eta zaurgarri nabarmenean baitaude. Administrazio publikoek, modu koordinatuan, kasu egin behar diote problema honi. Horrela, foru lege proiektu honen laugarren idatz-zatiak 4. zenbakia gehitu dio PFEZari buruzko Foru Legeko 55. artikuluko 1. idatz-zatiari; hain zuzen ere, helburua da menpekotasun arriskua bereziki estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak kengarriak izan daitezela zerga-oinarritik.

Hala ere, kontuan izanik PFEZari buruzko Foru Legean aldatetako sartuko dituen foru legearen aurreproiektua prestatzen ari direla, eta aldatetako horiek testu horretako 55. artikuluko 1. idatz-zati osoari eraginen diotela (arau luze, eta batzuetan, ulertzen zaila), egoki iritzi diogu foru lege honetako laugarren idatz-zatia kentzeari eta gai hori aipatu den aurreproiektuan sartzeari (menpekotasunean dauden pertsonen zerga egoera hobetuz, gainera, menpekotasun handia izatearen arriskua estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak ez ezik, menpekotasun larria estaltzen dutenei ordaindutakoak ere kengarriak izanen baitira). Proposamen horrekin, hau da, idatz-zati hori kenduta, arauen izapideak argiagoak dira; izan ere, PFEZari buruzko Foru Legeko 55. artikuluko 1. idatz-zatia osorik eztabaidatzeko aukera izanen da, prestatzen ari den foru legearen aurreproiektuaren izapideak egiten direnean.

9. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko bosgarren idatz-zatia –55. artikulua 3. idatz-zatitik amaierara arte aldatzen du–, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

Idatz-zati berria. 55.3 artikulua.

“3. Gutxieneko pertsonalagatik, subjektu pasibo bakoitzeko 3.700 euro urteko.

4. Artikulu honetan aipatzen diren kenkariak hurrengo arauari jarraituz egiten dira:

1.a Lehen eta bigarren idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko dira lehenbizi.

2.a. Emaizta positiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Emaizta negatiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritako murrizketa aplikatuko litzaioke zerga-oinarriaren zati bereziari, negatibo bihurtu gabe ere.”

Zioak: Lege bereko 62. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat etorritik, zerga-oinarriko familia murriztapenak kendu eta 6. artikulura eraman ditugu, tributu-kuotako kenkari bihurtuta.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren seigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Seigarren idatz-zati horrek Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen du.

4. idatz-zatiko 1. zenbakiko b) letrako azken lerrokadari eragiten dio zuzenketak.

Hona lerrokadari izanen duen testua:

“Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duen hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.200 euro urtean. Adopzio kasuetan murriztapen hori aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zerga-aldian eta hurrengo bietan.”

Zioak: Arau hori orain dagoen moduan, hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko edo haur adoptatu bakoitzeko murriztapena urteko 1.200 eurokoa da. Lege proiektuan zenbateko hori 1.400 eurokoa zen. Proposatzen den testuarekin, zenbatekoa urteko 2.200 eurokoa izanen da; hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familien egoera hobetzeko eta adopzioak bul-tzatzeke apustu garbia da.

Gure gizartea zahartzen ari da gutxika-gutxika, jaiotzen kopurua ez baita nahikoa belaunaldien

ordezkapena bermatzeko. Egoera honetan, urrats bat egin beharra dago jaiotzak eta adopzioak sustatzeko. Hori dena, beste neurri batzuk ere hartzearekin batera, hala nola familia eta lana bateragarriak egiteko neurriak.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Artikulu bat, 55. bis), gehitzeko zuzenketa.

“55. bis artikulua. Gutxieneko pertsonala eta familiarra.

Gutxieneko pertsonala eta familiarra da zergarik ordaindu behar ez duen likidazio-oinarriaren zatia, zergadunaren eta haren familiaren oinarritzko beharretarako izateagatik.

Likidazio-oinarri orokorraren zenbatekoa gutxieneko pertsonalaren eta familiarraren gainera dagoenean, gutxieneko hori likidazio-oinarri orokorraren parte izanen da. Likidazio-oinarri orokorraren zenbatekoa gutxieneko pertsonalaren eta familiarraren azpitik dagoenean, gutxieneko hori likidazio-oinarri orokorraren parte izanen da, deuen zenbatekoarekin, eta gainerakoa, berriz, likidazio-oinarri bereziaren parte. Likidazio-oinarri orokorrik ez denean, gutxieneko pertsonala eta familiarra likidazio-oinarri bereziaren parte izanen da.

Gutxieneko pertsonala eta familiarra hau izanen da: zergadunaren gutxienekoa gehi 55. bis eta 55. ter artikuluek aipagai dituzten gutxienekoak, hau da, ondorengo ahaideengatikoa, aurreko ahaideengatikoa eta ezgaitasunarengatikoa.

Zergadunaren gutxienekoa.

Zergadunaren gutxienekoa, oro har, urteko 5.700 eurokoa izanen da.

Zergadunak 65 urte baino gehiago badu, gutxienekoa 900 euro gehiago izanen da urteko. Zenbateko hori urteko 2.000 eurokoa izanen da, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.”

Zergadunaren gutxienekoa 2.500 euro gehiago izanen da urteko, baldin eta zergadunak egiaztatzen badu 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa duela. Zenbateko hori urteko 9.000 eurokoa izanen da zergadunak egiaztatuz gero duen minusbaliotasun maila %65ekoa edo handiagoa dela.

Zioak: Zergarik ordaindu behar ez duen zerga-oinarritik –oinarritzko beharretarako izateagatik– bereiztea murriztapenak; formula honekin tributu bidezkoagoa lortzen da.

Gutxienekoak araubide komuneko proposamenara egokitzea, foru proiektua baino eskuzabalagoa baita.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste artikulua bat, 55. ter), gehitzeko zuzenketa.

“55. ter artikulua. Gutxieneko familiarra.

a) Aurreko ahaideengatikoa gutxienekoa.

Aurreko ahaideengatikoa gutxienekoa 900 euro izanen da urteko, zergadunarekin bizi den 65 urte baino gehiagoko pertsona bakoitzeko edo ezgaitasuna duen pertsona bakoitzeko –adina gorabehera, kasu horretan–; betiere horiek ez badituzte 8.000 euro baino gehiagoko errentak urtean, salbuetsitako errentak kontuan hartu gabe.

Aurreko ahaideengatikoa gutxienekoa 2.000 eurokoa izanen da, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

b) Ondorengo ahaideengatikoa gutxienekoa.

Hona ondorengo ahaideengatikoa gutxienekoa, zergadunarekin bizi den 30 urte baino gutxiagoko pertsona bakoitzeko edo ezgaitasuna duen pertsona bakoitzeko –adina gorabehera, kasu horretan–; betiere horiek ez badituzte 8.000 euro baino gehiagoko errentak urtean, salbuetsitako errentak kontuan hartu gabe:

– 1.800 euro urtean lehenbizikoagatik.

– 2.000 euro urtean bigarrenagatik.

– 3.600 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 4.100 euro urtean, laugarrenagatik eta hurrengoengatik.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.200 euro urtean. Adopzio kasuetan, Erregistro Zibilean izena ematen den zergaldian eta hurrengo bietan aplikatuko da zenbateko hori. Erregistro Zibilean izena ematea beharrezkoa ez denean, kopuru hori aplikatu ahal da adopzioaren ebazpen judiziala edo adminis-

tratiboa ematen den zergaldian eta hurrengo bietan.

c) Ezgaitasunagatiko gutxienekoa.

Ezgaitasunagatiko gutxienekoa hau izanen da: zergadunaren ezgaitasunagatiko gutxienekoaren eta aurreko nahiz ondorengo ahaideen ezgaitasunagatiko gutxienekoaren batuketa.

1. Zergadunaren ezgaitasunagatiko gutxienekoa urteko 2.270 eurokoa izanen da, pertsona ezgaitua denean, eta urteko 8.000 eurokoa, ezgaitua izan eta %65eko minusbaliotasuna edo handiagoa egiaztatzen badu.

Gutxieneko horrek, laguntza gastuak direla-eta, urteko 2.270 euro eginen du gora ahaide bakoitzeko, baldin eta aurreko edo ondorengo ahaide horrek egiaztatzen badu beste pertsona baten laguntza behar duela edo mugikortasun urria duela, edota duen %65eko minusbaliotasun maila edo handiagoa duela.

2. Aurreko eta ondorengo ahaideen ezgaitasunagatiko gutxienekoa urteko 2.270 eurokoa izanen da, 4. idatz-zati honetako a) eta b) letretan aipatzen den gutxienekoa aplikatzeko eskubidea sorrazten duen ondorengo nahiz aurreko ahaide bakoitzeko; betiere, ezgaitasuna duten pertsonak badira eta haien adina edozein dela ere. Gutxienekoa urteko 8.000 eurokoa izanen da %65eko minusbaliotasun maila edo handiagoa egiaztatzen duen bakoitzeko.

Gutxieneko horrek, laguntza gastuak direla-eta, urteko 2.270 euro eginen du gora ahaide bakoitzeko, baldin eta aurreko edo ondorengo ahaide horrek egiaztatzen badu beste pertsona baten laguntza behar duela edo mugikortasun urria duela, edota duen %65eko minusbaliotasun maila edo handiagoa duela.

3. Zerga honi dagokionez, ezgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira %33ko minusbaliotasun maila edo handiagoa egiaztatzen duten zergadunak, eta erregelamenduz ezarriko da zer baldintzatan egiaztatu behar den minusbaliotasuna.

d) Gutxienekoak aplikatzeko arauak.

1. Bi zergadunek edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarrak aplikatzeko eskubidea, aurreko edo ondorengo ahaide berengatik, zenbatekoa haien artean hainbanatuko da.

Dena den, zergadunek ahaidetasun maila desberdina badute aurreko edo ondorengoko ahaidearekin, gertueneko mailako ahaideari soilik aplikatuko zaio gutxienekoa, non eta horren urteko errentak, salbuetsitako errentak bazter utzita, ez

diren 8.000 eurotik gorakoak, orduan hurrengo graduako ahaideari aplikatuko baitzaio.

2. Ezin izanen da aurreko eta ondorengo ahaideengatik eta ezgaitasunagatiko gutxienekoa aplikatu, baldin eta eskubide hori sorrazten duten aurreko edo ondorengo ahaideak 1.800 euro baino gehiagoko errenta aitortpena aurkezten badu.

Foru lege honetako 55. bis eta 55. ter artikuluetan ezarritakoaren eraginetarako aintzat hartu behar diren gorabehera pertsonal eta familiarrak zehazteko, zerga sortzean dagoen egoera hartuko da kontuan.

4. Hala ere, aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, ondorengo ahaideengatik gutxienekoa aplikatzeko eskubidea sorrazten duen ahaide hilez gero, urteko 1.800 eurokoa izanen da ahaide horrengatik zenbatekoa.

5. Aurreko ahaideengatik gutxienekoa aplikatzeko, ahaide horiek zergadunarekin bizi beharko dute zergaldiaren erdia gutxienez.”

Zioak: Gutxienekoak araubide komuneko proposamenera egokitzea, foru proiektua baino esku-zabalagoa baita.

13. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste puntu bat, bosgarrenaren eta seigarrenaren artean, gehitzeko zuzenketa. 57. artikulua aldatuko du. Honela geldituko da:

Idatz-zati berria. 57. artikulua.

“57. artikulua. Likidazio-oinarri berezia.

Likidazio-oinarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren zati bereziari aplikatuko zaio 55. artikulua 4. idatz-zatiko 23. erregelari aipatzen den kategoria, hala egokitzen bada.”

Zioak: Lege bereko 55. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

14. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. idatz-zatian, 55. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen baitu, artikuluko 1. zenbakiko a) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“a) Subjektu pasiboarekin bizi den eta urteko errenta, salbuetsiak kenduta, lanbide arteko gutxi- eneko soldata baino altuagoa ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, kopuru hauetako bat:

– 900 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldin- tzak betetzen baditu.

– 2.000 euro, baldin eta aurreko ahaideak hiru- rogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko horiek famili unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errentak gutxi- eneko soldata horren halako bi izanen dira gehienez, famili unitate osorako.”

Zioak: Legeko aipamenetan, parametro hori aplikatuko dela bermatzea, hori baita ahalmen ekonomiko duina izateko gutxi- eneko aukerak bermatze- ko erreferentziazko adierazlea.

15. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. idatz-zatian, 55. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen baitu, artikuluko 1. zenbakiko b) letrako lehenengo lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondo- rengo ezkongabe bakoitzeko, subjektu pasiboare- kin bizi bada eta urteko lanbide arteko gutxi- eneko soldatetik goragoko urteko errentarik, salbuetsiak bazter utzirik, jasotzen ez badu:

- 1.650 euro urtean lehenbizikoagatik.
- 1.750 euro urtean bigarrenagatik.
- 2.500 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 3.350 euro urtean, laugarrenagatik.
- 3.800 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 4.400 euro urtean, seigarrenagatik eta hurrengoengatik.”

Zioak: Legeko aipamenetan, parametro hori aplikatuko dela bermatzea, hori baita ahalmen ekonomiko duina izateko gutxi- eneko aukerak bermatze- ko erreferentziazko adierazlea.

16. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. idatz-zatian, 55. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen baitu, artikuluko 1. zenbakiko c) letrako lehenengo eta bigarren lerrokadak aldatze- ko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“c) Ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, edozein adinetakoa izanik, subjektu pasiboarekin bizi bada, betiere haren urteko errentak, salbuetsiak kenduta, ez badira, kasuan kasuko zergaldian, urteko lanbide arteko oinarritzko soldata baino handiagoak, eta ezgaitu- ak badira (minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65koa baino txikiagoa dutela frogatuta), arestiko letretan xedatutakoari jarraituz bidezko diren zenbatekoen gain: 2.200 euro urte- ko. Zenbateko hori 7.700 eurokoa izanen da urte- an, egiaztatutako minusbaliotasun maila %65koa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten kide badira, arestiko lerrokadan aurreikusitako errenta-muga gutxi- eneko soldata horren halako bi izanen da, familia unitate osorako.”

Zioak: Legeko aipamenetan, parametro hori aplikatuko dela bermatzea, hori baita ahalmen ekonomiko duina izateko gutxi- eneko aukerak bermatze- ko erreferentziazko adierazlea.

17. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. idatz-zatian, 55. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen baitu, 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxi- eneko familiarrak aplikatzeko eskubi- dea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan.

Dena den, subjektu pasiboek ahaidetasun maila desberdina badute aurreko edo ondorengo- ko ahaidearekin edo lagundutako pertsonarekin, gertueneko mailako ahaideak soilik izanen du ken- kari familiarra izateko eskubidea. Hurbileneko ahaideen artean inork ez badu urteko lanbidearte- ko oinarritzko soldatetik gorako errentarik, salbue- tsiak bazter utzita, kenkaria hurrengo mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.”

Zioak: Legeko aipamenetan, parametro hori aplikatuko dela bermatzea, hori baita ahalmen ekonomiko duina izateko gutxieneko aukerak bermatzeko erreferentziazko adierazlea.

18. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

“Ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa” erreferentzia aldatu, eta horren orde, foru lege proiektu osoan, “lanbide arteko gutxieneko soldata” jartzeko zuzenketa.

Zioak: Ekimenak izan ditugu pentsioen osagarrietarako erreferentzia lanbide arteko gutxieneko soldata izan dadin, eta ez ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM), eta, ekimen horiekin bat, lege honetako aipamen ugarietan ere erreferentzia hori ezarri behar litzateke, hau da, lanbide arteko gutxieneko soldata.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren zazpigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Likidazio-oinarrien eta tipoen eskalaren aldaketa; beste tarte bat gehitzea proposatzen da eskalaren goiko aldean. Horrenbestez, zazpigarren idatz-zatia honela geldituko litzateke.

“Zazpi. 59. artikulua 1. idatz-zatia aldatu da.

1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria gehienez (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina gehienez (eurotan)	Tasa (ehunekoak)
		3.600	13
3.600	468	4.400	22
8.000	1.436	8.500	25
16.500	3.561	12.500	28
29.000	7.061	14.500	36
43.500	12.281	16.500	42
60.000	19.211	Gainerakoa	49”

Zioak: Zergaren gehikortasuna eta zerga-bilketarako ahalmena areagotzearen aldekoak gara.

20. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko zazpigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

Zazpi. 59.1 artikulua

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria gehienez (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina gehienez (eurotan)	Tasa (ehunekoak)
		3.600	13
3.600	468	4.400	22
8.000	1.436	8.500	25
16.500	3.561	12.500	28
29.000	7.061	14.500	36
43.500	12.281	17.500	42
60.000	19.631	Gainerakoa	44”

Zioak: Ez gatoz bat gehiengo tasa murriztearekin.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren zazpigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Zazpi. 59. artikulua 1. idatz-zatia aldatu da.

“1. Likidazio-oinarri orokorrean, 55. bis eta 55. ter artikuluek aipagai dituzten gutxieneko pertsonala eta familiarra gaintzen duen zatiari honako karga-tasak aplikatuko zaizkio:

– Likidazio-oinarri orokorrari eskala hau aplikatuko zaio:

Likidazio oinarria gehienez (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina gehienez (eurotan)	Tasa (ehunekoak)
0	0	17.360	24
17.360	4.166,40	15.000	28
32.360	8.366,40	20.000	37
52.360	15.766,40	Hortik aurrera	43

– Hortik ateratzen den kopuruari zenbateko bat kenduko zaio; hain zuzen ere, gutxieneko pertsonala eta familiarri dagokion likidazio-oinarri oroko-

rrari aurreko eskala aplikatzearen ondorioz ateratzen den zenbatekoa”

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat.

22. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; idatz-zati horrek 59. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen du.

Hau da proposatzen den testua:

Zazpi. 59. artikulua 1. idatz-zatia aldatu da.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria gehienez	Kuota osoa	Oinarriaren soberakina gehienez	Tasa
		3600,00	13,00
3600,00	468,00	5000,00	22,00
8600,00	1568,00	8500,00	25,50
17100,00	3735,50	13000,00	28,00
30100,00	7375,50	13500,00	37,00
43600,00	12370,50	13500,00	43,50
57100,00	18243,00	Gainerakoa	46,00

Zioak: Tributu karga askoz ere gehikorra eta bidezkoagoa da.

23. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat gehitzea, zazpigarrenaren eta zortzigarrenaren artean; haren bidez, 62.1.c) artikulua aldatuko da. Honela geldituko da:

62.1.c) artikulua.

“c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberitzeagatik egindako kenkariei dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izanen du 120.000 euroko zenbatekoa gainditu, subjektu pasiboaren zerga-aldiak batera hartuz gero”

Zioak: Etxebizitzen egungo prezioa ikusita, 90.150 euroko kopurua barregarria da. Gainera, ez da logikoa kopuruak ondarearen gainezko zergarako aldatzea eta ez aldatzea PFEZaren kenkarirako.

24. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat gehitzea, zazpigarrenaren eta zortzigarrenaren artean; haren bidez, 62.1.f) b') letra gehituko zaio. Testu hau izanen du:

62.1.f) b') artikulua.

“Kasu honetan, ez da egonen kenkarirako gehieneko oinarriko muga, urteko 9.015 eurokoa”

Zioak: Obrak ezgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak egokitzeko egiten badira, gure ustez ez dago zertan 9.015 euroko muga jarri. Normalean, obrek askoz ere diru gehiago kostatzen dute, eta gainerakoarengatik kenkaria aplikatzeko aukera galtzen da.

25. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat, zazpigarrenaren eta zortzigarrenaren artean, gehitzeko zuzenketa. 62.2 artikulua aldatuko du. Testu hau izanen du:

Idatz-zati berria. 62.2. artikulua. Kenkaria, ohiko etxebizitza alokatzeagatik.

“Zergaldian zehar ohiko etxebizitza errentan hartuta izateagatik ordainketak egin behar izan dituzten zergadunek, honako bi kenkari hauetako bat aplikatu ahal izanen dute:

a) Zergaldian ordaindutako diru kopuruen ehuneko 20, eta, betiere, 1.200,00 euro urtean gehienez.

b) Zergaldian ordaindutako diru kopuruen ehuneko 25, eta, betiere, 1.500,00 euro urtean gehienez, baldin eta zergadunak bi baldintza hauetako- ren bat betetzen bada:

– 35 urte baino gutxiago izan.

– Familia ugariaren titularra izan.

Artikulu honetarako, zergadunaren adina zehazteko, zergaldiaren hasiera-eguneko egoera hartuko da aintzat.

Baterako zerga-ordainketa hautatzen bada eta kenkari hori aplikatzeko eskubidea duten pertsona bat baino gehiago badaude, 35 urte baino gehiagokoak batetik eta adin horretatik beherakoak bestetik, haietako bakoitzak, artikuluko honetako 1. idatz-

zatiarekin bat, dagozkion ehunekoa eta muga aplikatuko ditu.

Kenkariak egiteko hurrengo baldintzak beharko dira:

a) subjektu pasiboak ez izatea zergaldian 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe.

b) alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboak zergaldian eskuratutako errenten ehuneko 10 baino gehiagokoak izatea, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe.”

Zioak: Gure inguruko lurraldeetan ezarrita dagoen neurri bat aplikatzea da asmoa, etxebizitzaren alokairua bultzatzea helburu, mesedegarria baita, gazteentzat bereziki.

26. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko zazpigarren eta zortzigarren idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, 62. artikuluari beste idatz-zati bat gehituko zaio:

62. artikulua. Idatz-zati berria:

“Kenkaria, ezgaitasuna duten pertsonak zaintzen eginiko gastuengatik.

Ehuneko 33ko minusbaliotasun-gradua duten pertsonak zaintzeko zerbitzuetan eginiko gastuen ehuneko 15eko kenkaria aplikatuko dute subjektu pasiboek.

Erregelamendu bidez ezarriko dira horretarako betebeharrak eta baldintza zehatzak.”

Zioak: Gure ustez, komenigarria da ezgaitasuna duten pertsonak zaintzen eginiko gastuak PFE-Zen kendu ahal izatea.

27. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko zazpigarren eta zortzigarren idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, 62. artikuluari beste idatz-zati bat gehituko zaio:

Idatz-zati berria. 62. artikulua. Beste idatz-zati bat gehitzea 62. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatien artean.

“Etxebizitza errentan emateagatik kenkaria.

1. Etxebizitza errentan emanez gero --altzariak, trastelekuak, aparkalekuak eta etxebizitzaren eranskinak eta osagarriak barne, horiek etxebizitzarekin batera ematen badira errentan--, errentan ematen duenak etekin garbiaren ehuneko 10eko kenkaria aplikatu ahal izanen du; betiere, Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikulua aipatzen dituen errentamenduak badira.

2. Aurreko idatz-zatiko kenkaria gehienez ere 600 eurokoa izanen da. Muga hori banaka ezarriko da eta errentan emaniko etxe bakoitzeko aplikatuko da.”

Zioak: Etxebizitzaren errentamendua sustatzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu errentatzaileak ere kenkaria izatea, gure inguruan egiten den bezala.

28. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko zortzigarren eta bederatzigarren idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, 62. artikuluari beste idatz-zati bat, 9. zenbakikoa, gehituko zaio. Hona testua:

62. artikulua. Kuotako kenkariak:

“9. Kenkari familiarrak

a) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ezkongabe bakoitzagatik honako kenkari hauek aplikatuko dira:

Lehenbizikoagatik: 462 euro.

Bigarrenagatik: 490 euro.

Hirugarrenagatik: 700 euro.

Laugarrenagatik: 938 euro.

Bosgarrenagatik: 1.064 euro.

Seigarrenagatik

eta hurrengoengatik: 1.232 euro.

Letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko edo adoptatu bakoitzeko, urtean 392 euroko kenkari osagarria aplikatuko da, aurrekoaren arabera aplikatzeko den kenkariaren gain. Adopzio kasuetan murrizketa hori aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

Nazioarteko adopzio baten bidez adoptatutako pertsona bakoitzeko ere, 1.200 euroko beste kenkari bat aplikatuko da. Epailak noiz ematen duen

adopzioa eratzeko ebazpena, zergaldi horretan aplikatuko da kenkari hori.

Ez da kenkaririk izanen hurrengo egoeraren batean dauden ondorengo ahaideengatik:

- Zergaren sortzapena baino lehen hogeita hamar urte beteta dituztenengatik, 1. idatz-zati honetako d) letran jasotzen den salbuespena salbu.

- Lanbide arteko oinarrizko soldata baino handiagoak diren urteko errentak, salbuetsiak barne, jasotzen dituztenak.

Ondorengo ahaideren bat gradu bereko aurreko ahaide batzuekin bizi denean, kenkaria zati berdinean hainbanatuko da aurreko bakoitzaren aitorpenean.

Ahaidetasun maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi diren ondorengo ahaideen kasuan, maila hurbileneko aurreko ahaideek soilik izanen dute kenkaria izateko eskubidea. Hurbileneko aurreko ahaideen artean inork ez badu dagokion zergaldiaren garaian urteko lanbide arteko oinarrizko soldatetik gorako errentarik, salbuetsiak barne, kenkaria urrunagoko mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

Letra honetan ezarritako kenkaria aplikatzekoa izanen zaie baita ere, beharkizun eta baldintza beretan, aplikatzekoa den legedi zibilari jarraikiz eginiko tutoretza kasuei, bai umeordetza eta harre-
ra kasuei ere.

b) Subjektu pasiboarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzeko, haren urteko errentak, salbuetsiak barne, kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko lansaria gaintitzen ez badu: 252 euro. Zenbateko hori 560 eurokoa izanen da, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horien familia unitatearen urteko errentak, salbuetsiak barne, gutxieneko lansari horren halako bi baino gehiagokoak ez badira, kenkaria 252 eurokoa izanen da haietako bakoitzeko. Zenbateko hori 560 eurokoa izanen da, aurreko ahaideek hirurogeita hamabost urte edo gehiago badituzte.

Aurreko ahaideak subjektu pasibo bat baino gehiagorekin bizi baldin badira, kenkaria hainbana burutuko da bakoitzaren aitorpenean. Seme-alabek ezin izanen dute kenkaria gauzatu beren gurasoek horretarako eskubidea baldin badute.

c) Hirurogeita bost urte edo gehiagoko subjektu pasibo bakoitzeko: 252 euro. Zenbateko hori 560 eurokoa izanen da, subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

d) Ezgaitua den subjektu pasibo bakoitzeko, lehen aipaturiko kenkarietz gain, jarraian adierazten den kenkaria aplikatuko da, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraituz finkaturiko ezgaitasun-mailaren arabera:

Ezgaitasun-maila	Kenkaria (euroak)
Ehuneko 33koa edo handiagoa, eta ehuneko 65 baino txikiagoa.	700
Ehuneko 65ekoa edo handiagoa	2.520

Kenkari bera aplikatu beharko da ondorengo ahaide, aurreko ahaide, ezkontide edo laugarren gradurainoko (hori ere barne) alboko ahaide bakoitzeko, edozein adinetakoak direlarik ere, baldin eta haiek, zergadunaren menpean egonik eta kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza baino urteko errenta handiagorik ez izanik, minusbaliatuak badira.

Kenkari hori bateragarria izanen da aurrean adierazitakoaren arabera aplikatzekoak diren kenkariekin.

Era berean, kenkari hau aplikatzea bidezko izanen da baldin eta ezgaitasuna duen pertsonak subjektu pasiboarekin lotura badu aplikatzekoa den legedi zibileko tutoretza, umeordetze edo harrera bidez eta aurreko lerrokadan errenta-mailari buruz adierazitakoa betetzen bada.

Kenkari horretarako eskubidea ematen duten pertsonak subjektu pasibo bat baino gehiagoren esku baldin badaude, kenkaria haien artean hainbanatuko da bakoitzaren aitorpenean.

e) Subjektu pasiboak 616 euroko kenkaria izan ahalko du pertsona lagundutzat hartzen den senide bakoitzeko, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Lagundutako pertsonaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak eginen du kenkaria eta, halakorik egon ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak. Gradu bereko senide bat baino gehiago baldin badago, kenkaria hainbanatu eginen da.

Kenkaria egiteko eskubidea duen subjektu pasiboaren urteko errentek, salbuetsitako errentak barne direla, lanbide arteko gutxieneko soldata gaintitzen ez dutenean, graduaren hurrengo direnei, halakorik bada, pasatuko zaie kenkaria.

Letra honetan aurreikusi den kenkaria ezin izanen da aplikatu lagundutako pertsonak aurreko

letran ezarritako kenketarako eskubidea baldin badu.

Pertsona lagundua izatea eta subjektu pasiboarekin bizitzea frogatu egin beharko dira Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak urtero emandako ziurtagiriarekin.

f) Subjektu pasiboak eskubidea izanen du Gizarte Segurantzari egindako kotizazioengatik zergaldian ordaindutako zenbatekoaren % 25eko kenkaria izateko, baldin eta kotizazio horiek egin badira 16 urtetik beherako ondorengo ahaideak zaintzeko edo subjektu pasiboarentzat b), c), d) eta e) letretan jasotako kenkariak aplikatzeko eskubidea sorrarazten duten pertsonak zaintzeko xedez familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizaturiko kontratuen ondorioz.”

Zioak: Kenkariak kuotan aplikatzearen sistemari kenkariak oinarrian aplikatzearen gaur egungoa baino bidezkoago deritzogu, sistema horrek amai-eran duen eraginak ez duelako loturarik zergadunaren errenta-mailarekin. Kenkaria oinarriari aplikatzeko sisteman mesede egiten zaie errentarik altuenei.

29. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko zortzigarren eta bederatzigarren idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, 67. bis artikulua aldatuko da. Hona testua:

Idatz-zati berria: 67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

“Ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM)” dioen lekuan “lanbide arteko gutxieneko soldata (SMI)” esan behar du.

Zioak: Alargun pentsioak, gure taldearen ustez, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatu behar dira, eta ez ondorio askotarako errenta-adierazle publikoarekin.

30. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Artikulu bakarren bederatzigarren idatz-zatia aldatzea proposatzen da.

Bederatzi. 75. artikuluko 7. araua aldatu da.

“7. 71. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letran aipatzen diren familia unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonala, zeina 55. bis artikuluan ezartzen baita, 2.400 euro igoko da. Igoera hori ez da gertatuko aita eta ama elkarrekin bizi badira.”

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat.

31. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarren bederatzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“7. 71. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letran aipatzen diren familia unitateen kasuan... non eta gurasoak ez dauden judizialki bananduak.”

Zioak: Zehaztasun eta segurtasun juridikoa dela eta.

32. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Artikulu bakarren hamargarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hamargarren idatz-zati horrek beste xedapen gehigarri bat, hogeita bigarrena –alargun pentsioen ondoriozko kenkari osagarria–, gehitzen dio Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari.

Hona hamargarren idatz-zatiak izanen duen testua:

“Hamar. 67. bis artikulua aldatu da.

67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, kenkari gehigarria egiten ahalko dute, kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokadan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun-pentsioa ez baldin bada jaso zer-

galdi osoan, zenbateko hori urtera eramane da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egiten.

Kenkaria baliatzeko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

2. Gizarte Segurantzatik kasuan kasuko pensio motarentzat finkatutako gutxienekoa baino gehiagoko alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izanen da alde zurretik abonatu.

Alargun-pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da."

Zioak: Rodriguez Zapatero jaunaren gobernuak talde horren dirusarrerak hobetzeko duen eraginkortasun eta konpromiso falta dela eta, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateak ahaleginak egitea behartsuenen errentak hobetzeko.

33. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren hamargarren atala aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geldituko da:

Hamar. 67. bis artikulua aldatu da.

67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, 2005eko urtarriletik aurrera kenkari gehigarria egin ahalko dute, kasuan kasuko pensio motarentzat finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun-pentsioa ez baldin bada zergaldi osoan zehar jasotakoa, zenbateko hori urtera eramane da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari kenkari hori alde zurretik ordain dezala eskatu ahalko zaio. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egiten.

Kenkaria baliatzeko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta alde zurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

2. Gizarte Segurantzatik kasuan kasuko pensio motarentzat finkatutako gutxienekoa baino gehiagokoak diren kotizaziopeko alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izanen da alde zurretik abonatu.

Alargun-pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da."

Zioak: Bidezkoa iruditzen zaigu alargun pentsio gutxienekoak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea, 2005etik aurrerako eraginarekin.

34. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamargarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitu da: Alargun-pentsioetako kenkari osagarria.

Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua aldatuko da. Testu hau izanen du:

“67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alarguntasun pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen badute –ekainaren 25eko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarriak barne, kasua bada, eta kontuan hartuta errentan deklaraturiko beste kontzeptu batzuegatik edukitako gainerako dirusarrerak–, eskubidea izanen dute aipatu lanbide arteko gutxieneko soldatara arteko osagarri bat jasotzeko.

Alarguntasun pentsioarengatik errentaren gaineko zergaren kenkari gisako osagarria, edonola ere, alarguntasun pentsio horrek indarra duen zergaldian zehar sortuko da.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta kenkariaren ordainketa alde zurretik egitea eskatu eta lortzekoa ere. Halaber, erregelamendu horretan arautuko da subjektu pasiboaren, hau da, alarguntasun pentsioa jasotzen duenaren, gainerako dirusarrerak zenbartzeko modua.”

Bigarren artikulua.- Arau honen ondorio ekonomikoaren atzerako eragina 2005eko urtarrilaren 1era arte iritsiko da.

Hirugarren artikulua.- Arau honen ondoriozko betebeharreri aurre egiteko aurrekontu-dirua Nafarroako aurrekontuan dagoena da, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpenari buruzko lerroetan eta kontusailetan.

Azken xedapenetan lehena.- Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontra-koak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.”

Zioak: Nafarroak dituen bizitza-maila eta baliabideak aintzat harturik, beharrezkoa da osagarria, eta Parlamentuko alderdi politiko guztiek onartzen dute behar hori badagoela. Areago, onartzen dute osagarri horrek lanbide arteko gutxieneko soldatarainokoa behar duela izan, eta horri buruz IPREM-Ondorio askotarako errenta-adierazle publikoari buruzko argudio guztiak bertan behera utzi dira. Alderdi politiko guztien jarrera bateratu horrek, egiazkoa bada, eta ez hauteskunde-trikimailu bat, hertsiki jokatzu behartzen du 2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izatera, pertsona alargunen duintasunaren errespetua eta aitorpena helburu.

35. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamargarren idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea. Testu hau izanen luke:

“67. bis A) artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, erretiroagatik edo lanerako ezintasunagatik SOVI-zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen badute –ekainaren 25eko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarriak barne, kasua bada, eta kontuan hartuta errentan deklaraturiko beste kontzeptu batzuegatik edukitako gainerako dirusarrerak–, eskubidea izanen dute aipatu lanbide arteko gutxieneko soldatara arteko osagarri bat jasotzeko.

Alarguntasun pentsioarengatik errentaren gaineko zergaren kenkari gisako osagarria, edonola ere, alarguntasun pentsio horrek indarra duen zergaldian zehar sortuko da.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta kenkariaren ordainketa aldeztu aurretik egitea eskatu eta lortzekoa ere. Halaber, erregelamendu horretan arautuko da subjektu pasiboaren, hau da, alarguntasun pentsioa jasotzen duenaren, gainerako dirusarrerak zenbartzeko modua.”

Bigarren artikulua.- Ebazpen honen ondorio ekonomikoen eragina 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izanen da.

Hirugarren artikulua.- Arau honen ondoriozko betebeharrak aurre egiteko aurrekontu-dirua Nafarroako aurrekontuan dagoena da, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenari buruzko lerroetan eta kontusailetan.

Azken xedapenetan lehena.- Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontraktoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.”

Zioak: Alargunen pentsioetarako osagarriari buruz Parlamentu honetan izandako eztabaidetan, agerian utzi da SOVIko pentsio-hartzaileentzako osagarrien prestazioari ere legegintzaldi honetan bertan ekiteko borondatea. Lehenik eta behin, funtsezko justiziazkoak diren arrazoiengatik. Bigarrenik, alderaketaren arabera justiziazkoak diren arrazoiengatik. Hirugarrenik, ekonomikoki aurre egin ahal zaion helburua delako, kontuan izanik pentsio-hartzaile hauen kopurua eta kopuru horren beherantzko joera.

36. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea. Testu hau izanen luke:

“67. bis B) artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, nekazaritzako araubide bereziko eta araubideko autonomoen alarguntasun pentsioa jasotzen dituzten subjektu pasiboek, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen badute –ekainaren 25eko 1/1994 Legegintzako

Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarriak barne, kasua bada, eta kontuan hartuta errentan deklaraturiko beste kontzeptu batzuegatik edukitako gainerako dirusarrerak-, esku-bidea izanen dute aipatu lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen diren osagarri bat jasotzeko.

Alarguntasun pentsioarengatik errentaren gaineko zergaren kenkari gisako osagarria, edonola ere, alarguntasun pentsio horrek indarra duen zergaldian zehar sortuko da.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori aldeztu aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egingen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta kenkariaren ordainketa aldeztu aurretik egitea eskatu eta lortzekoa ere. Halaber, erregelamendu horretan arautuko da subjektu pasiboaren, hau da, alarguntasun pentsioa jasotzen duenaren, gainerako dirusarrerak zenbartzeko modua.”

Bigarren artikulua.- Ebazpen honen ondorio ekonomikoen eragina 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izanen da.

Hirugarren artikulua.- Arau honen ondoriozko betebeharrak aurre egiteko aurrekontu-dirua Nafarroako aurrekontuan dagoena da, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenari buruzko lerroetan eta kontusailetan.

Azken xedapenetan lehena.- Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontraktoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.”

Zioak: Funtsezko justiziazko eta alderaketaren arabera justiziazko arrazoiak direla-eta, beharrezkoa gertatzen da Nafarroak, zeinak gizarte ongizatearen alorrean erabateko eskumenak baitauka, lanbide arteko soldata baino txikiagoa den pentsio bat jasotzen duten gure nekazari eta autonomoen erretiro- eta elbarritasun-pentsioak osatzeko eginkizunari heltzea.

37. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

10. puntuko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hogeita bigarren xedapen gehigarria eranstean da.

Hau da proposatzen den testua:

2. "Subjektu pasiboek ondoren adierazten diren kenkari osagarrietako bat ere baliatu ahalko dute kasuan kasuko kuota diferentzian, baldin eta 2007ko urtarrilaren 1ean Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko alargun-pentsioak jasotzen badituzte, kasuan kasuko pensio-motarako ezarritako gutxieneko zenbatekoak baino handiagoak eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino baxuagoak badira:

a) 248 euro, foru lege honen 67 bis artikuluan aipatutako alargun-pentsioetako kenkariak egiteko eskubidea bakarrik 2006. urtean izan dutenek.

b) 378 euro, foru lege honen 67 bis artikuluan aipatutako alargun-pentsioetako kenkariak egiteko eskubidea 2005. eta 2006. urteetan izan dutenek.

c) 426 euro, foru lege honen 67 bis artikuluan aipatutako alargun-pentsioetako kenkariak egiteko eskubidea 2004., 2005. eta 2006. urteetan izan dutenek.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana 2007an zehar, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izanen da alde zuzenetik abonatu.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregulamendu bidez ezarriko da."

Zioak: Legeko aipamenetan, parametro hori aplikatuko dela bermatzea, hori baita ahalmen ekonomiko duina izateko gutxieneko aukerak bermatzeko erreferentziazko adierazlea.

38. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluan beste idatz-zati bat, hamargarrena, gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, 77.6. artikulua aldatuko da. Hona testua:

Idatz-zati berria. 77,6 artikuluan testu berria.

77. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

"6. 62. artikuluan 9. idatz-zatian aipatzen diren eta subjektu pasiboari dagozkion familia kenkariak gutxitu egiten dira zergaldia osatzen duten urte naturaleko egunen kopuruaren arabera, proportzionalki, salbu baterako zerga-ordainketaren kasuan; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera egini niko kenkariaren zenbatekoak gutxitu egiten du kontzeptu berberengatik beste subjektu pasibo batzuek egiten ahal dituzten kenkariaren zenbatekoa."

Zioak: 55 eta 62. artikuluetan egini niko aldaketak direla eta.

39. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Idatz-zati berri bat, hamaikagarrena, gehitzeko zuzenketa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 22/1998 Foru Legean xedapen gehigarri berri bat, hogeita hirugarrena, sortzen duena.

Hau da proposatzen den testua:

"Hamaika. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria.

Lege honek indarra hartzen duenetik aurrerako zergaldi bakoitzerako, Nafarroan aurreko urtean izandako benetako KPIa aintzat harturik aplikatuko zaio deflaktazioa likidazio-oinarriari."

Zioak: PFEZa aplikatzen zaien dirusarreraren benetako zenbatekoei egokitua mantentzea zerga horren ezarpena.

40. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Xedapen gehigarria.

"Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan gutxieneko pertsonal eta familiarrek duten tratamendua aldatuko duena.

Aldaketa horren bidez, gutxieneko pertsonal eta familiarren tratamendua egiten da zergako

kuota osoaren kenkari gisa, eta ez zerga oinarriaren murriztapen gisa”.

Zioak: Gehikortasun-printzipioaren aurkakoa da indarreko sistema; zenbat eta handiagoa izan zergadunaren errenta, handiagoa da gutxieneko pertsonal eta familiarretatik eratorritako aurrezpen fiskala.

41. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria.

1. 1. Familiari Laguntzeko Planaren barrenean, laguntza hauek emanen dira:

a) Hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak dauzkaten familia-unitateei 2.400 euroko laguntza emanen zaie urtean seme-alaba bakoitzeko, familia-errenta gordina 42.000 eurotik beherakoa bada. Laguntza hori Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak kudeatuko du.

Laguntza hiru urtez emanen da, haurren jaiotegunetik, edo familia-harrera iraunkorra edo adopzioaurrekoa erabakitzen duen ebazpen administratiboa edo adopzioa onartzen duen ebazpen judiziala ematen den egunetik kontaktzen hasita.

b) Lau haur edo gehiagoko familiei 900 euro emanen zaizkie urtero 18 urtez azpiko seme-alaba bakoitzeko, laugarrenetik aitzina, haien errenta erregelamenduz ezartzen diren mugetatik gora ez badago.

Bi laguntzak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira.

2. Laguntza horiek Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eman eta kudeatuko ditu.

3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, urtero, laguntza horiek emateko deialdia argitaratuko du, baldintzak, zenbatekoa eta ordaintzeko modua zehaztuta.”

42. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria.

Nafarroako zergadunek, beren errenta aitorpean, PFEZaren ondoriozko beren ekarpenaren % 0,7 bideratu ahalko dute Nafarroako GKEek eginko lankidetzaproiektuetara.”

Zioak: Beharrezkoa da Nafarroak diru gehiagoko ekarpena egitea nazioarteko lankidetzari.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2006ko urriaren 2an egindako bileran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Aralar parlamentu-taldeak aurkezturiko idazkiak, zeinetan Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako lau zuzenketa ez onartzeagatik helegiteak aurkezten baitzituen –erregistro zenbakiak 2535-2, 2535-16, 2535-17 eta 2535-20–.

Legelari Nagusiak emandako txostena entzunda, eta kontuan harturik oraingoan ordezkotestuak aurkeztu dituztela, 128.2 artikuluan ezarritakoa betez, hona ERABAKIA:

1. Aipatu zuzenketa tramitera onartzea eta ordena-zenbaki hauek adjudikatzea, hurrenez hurren: 1. bis, 15. bis, 15. ter eta 29. bis.

2. Zuzenketa hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzea.

Iruñean, 2006ko urriaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. bis ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1., 2. eta 3. artikulua oro har aldatzeko zuzenketa, salbu eta 3. artikuluko azken lerokada, horri buruz beste zuzenketa bat aurkeztu baitugu.

Proposatzen den testua

“1. artikulua. Definizioa.

1. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala Foru Komunitateko higiezinaren aberastasunaren inbentarioa da, ondasunak zehazten dituena, eta horretarako haien deskribapena, adierazpen grafikoa eta zenbatespen ekonomikoa egiten da eta haien titulartasun fiskalaren datuak bildu.

2. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala publikoa da eta Foru Komunitateko lurralde osoa hartzen du.

2. artikulua. Helburua.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalaren xedea da higiezinaren aberastasun

gaineko etengabeko informazioa edukitzea eta ekinbide fiskal edota ekonomikoetarako nahiz legeetan agintzen diren beste haietarako euskarri bilakatzea, Jabetza Erregistroari dagozkionak batere galarazi gabe.

3. artikulua. Edukia.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeari lotua dagoen informazioak gorpuzten du, eta bereziki ondasun higiezinaren datu eta deskribapenek, eta horretarako haien azalera, kokapena, erabilera edota probetxamenduak, tipifikazioa, balioak, titular fiskalak eta adierazpen grafikoak egiten dira. Hori guztia informaziorako oinarritzko unitatea higiezin-unitate izanik.”

Zioak: Zorrotzakoa da araubidea.

15. bis ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13., 14. eta 15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua

“13. artikulua. Higiezin-unitatea.

1. Higiezin-unitatea, edo balorazio unitatea, izanen da higiezin baten zati bakoitza, osotasunetik horrelakorik bereizten ahal denean, erabilera dela medio edota ezaugarri fisiko, administratibo nahiz juridikoengatik banakako balorazioa egiterik baldin bada.

2. Hiri-higiezinaren elementu amankomunak ez dira izaten ahal higiezin-unitate, nahiz eta haiek baloratzeko irizpide berberak erabiltzen ahal diren. Higiezinaren unitate bakoitzari erantsiko zaizkio, eraketa tituluan agertzen den partizipazio kuotaren arabera, eta halakorik ez balitz, unitate bakoitzaren azaleraren arabera.

“14. artikulua. Higiezin-unitateen sailkapena.

1. Higiezin-unitateak lurzoru edota eraikuntza izan daitezke.

2. Lurzoruaren kategoria eta kalifikazioak kasuan kasuan hirigintza eta lurraldearen antolamenduari buruzko legeriaren arabera zehaztuko dira.

3. Eraikuntza izanen dira:

a) Eraikinak, eraikitzeko erabilitako materialak, kokatuak dauden tokiak, kokatutako lurzorua mota eta duen erabilera zeinahi direla ere; baita, eraikuntza mota dela medio, garraiagarri direnak eta kokatua dagoen lurra eraikinaren jabearena berarena ez denean ere.

Etxola edo aterpe txikiak, material arin eta iraupen mugatukoekin eraikitakoak, nekazaritza, abeltzaintza edo oihan ustiapenetan erabilitakoak, ez dira edifiziotzat hartuko.

b) Urbanizazio lanak eta estali gabeko lekuak erabiltzeko egiten direnak, adibidez, azokak, kanpoko biltegiak, kirol zelaiak, zama-kaiak, ibilgailu-eraketa apartamentuak eta eraikuntzek iratsiak dituzten guneak.”

Zioak: Proiektuko artikuluko horietan jasotzen diren definizioak gehiegizkoak dira; hori agerian gelditzen da, adibidez, higiezinaren definizio alperrekoa ematean edo aireportuak pluralean aipatzean. Egungo lege indarduneko testua askoz ere zehatzagoa da, eta nahikoa.

Zenbait kalifikaziok, esate baterako “ondasun bereziak”, ez dute zentzu praktikorik arau diren aldetik.

15. ter ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko Foru Lege proiektuari Aralar parlamentu-taldeak aurkeztutako zuzenketa.

17. artikulutik 24.era bitartekoak aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua

“17. artikulua. Eskumen arauak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala egin eta kontserbatzea, baina udalerrri eta titularrek laguntza emanda, ondoko artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

18. artikulua. Aldaketen deklarazioa.

1. Titular fiskalek edo haien administratzaile nahiz ordezkari legitimoek udalerrian egin beharko dute deklarazioa, ondasunak zein udalerritan dauden udalerrri hartantxe, ondoko aldaketaren bat gertatzen baldin bada:

a) Aldaketa fisikoak: eraikin berriak egitea eta daudenak zabaldu, berriztatu edo botatzea, partzi-

alki nahiz osorik. Ez dira aldatetzat hartuko zenbait obra edo konponketa, baldin eta eraikina kontserbatzeko nahiz mantentzeko egiten baldin badira, ez eta edertzeko edo apaintzeko helburuarekin egiten direnak ere.

b) Aldaketa ekonomikoak: ondasun higiezinaren erabilera eta xedea aldatzea, aldaketa fisikorik izan ala ez izan.

Izaera ekonomikoko aldatetzat hartuko dira lurzatiaren laborantza lanak edo aprobetxamenduak aldatzea.

c) Aldaketa juridikoak: Foru lege honen 11. artikuluan bildutako eskubideak sortu, aldatu edo iraungitzea, bai eta ondasun higiezinak banandu, zatikatu edo elkartzea.

2. Deklarazioak egin beharko dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak onesten dituen ereduak inprimakiak betez. Eredu horiek egiteko hilabete bateko epea izanen da:

– Izaera fisikoko aldatetak direnean, aldaketaren eragile izan diren obrak bukatu eta biharamunetik hasita.

– Izaera ekonomikoko aldatetak direnean, erabilera edo destinoa aldatzeko administrazioak ematen duen baimena gertatu eta biharamunetik hasita, edo hura behar ez balitz, aldaketa gertatu eta biharamunetik hasita.

– Maila juridikoko aldatetak baldin badira, eskritura publikoa edo, hala baldin badagokio, aldaketa gauzatzen duen agiria ematen den egunaren biharamunetik kontaturik.

3. Artikulu honen 1. zenbakian xedatutakoa ezertan ukatu gabe, foru lege honen 11. artikuluan bildutako eskubideren bat transmititzeagatik sortutako izaera juridikoko aldatetak ere deklaratu ahal ditu transmisio-egileak.

4. Foru lege honen 11. artikulua aipatutako ondasunen batean eskubide desberdinak dituzten titularrak baldin badaude, artikuluko honetan agintzen zaizkien betebeharrak haiengan guztiengan izanen dute eragina, aldaketa horrek titular bakoitzari ukitzen duen neurriaren arabera.

19. artikulua. Okerrak edo omisioak deklaratzeko.

Foru lege honen 11. artikulua aipatzen dituen titularrek, baita haien administratzaile edo ordezkari legitimoek ere, ondasunak zein udalerrian dauden udalerrri hartantxe deklaratu beharko dituzte ondasun horiei buruz Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalean izan daitezkeen oker edo omisio guztiak.

20. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eginkizunak.

Foru lege honen lehenbiziko xedapen iragan-korrean xedatutakoa ezertan ukatu gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagozkio, besteak beste, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala kontserbatzeko ondoko eginkizunak:

a) Udalek igortzen dituzten aldaketak jaso, aztertu eta egiaztatzea.

b) Erregistroko datuak ikertu eta egiaztatzeko lanak egitea.

c) Balorazio prozeduratik heldu diren aldaketak formalizatzea.

d) Erregistroan dagoen udalerrri bakoitzari buruzko informazioa udalei eskaintzea, erregelamendu bidez arautzen diren formatu, euskarri eta betetzeko baldintzekin.

e) Hurrengo artikulua aipatzen dituen ekintzak udalerriei egiteko eskatzea, eta kasua haiek egin ezean haien ordez jardutea, eta hala baldin bada sortutako gastuak haiei egotziko zaizkie.

f) Aurreko letretan agertzen diren ekintzak gertatzearen ondorioz, Erregistroa eguneratzea.

g) Aurreko letretan aipatzen diren gaiak direla-eta aurkezten diren erreklamazio eta errekursoak ebaztea, Nafarroako Administrazio Auzitegiak edo administrazioarekiko jurisdikzioko organoek duten eskumena ezertan galarazi gabe.

21. artikulua. Udalen jarduketa.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala kontserbatzeko, udalerriei dagozkio, besteak beste, ondoko eginkizunak:

a) Jakinarazten zaizkion aldaketa, akats edo hutsak jaso, aztertu eta egiaztatzea.

b) Balorazio prozeduratik heldu diren eginkizun guztiak betetzea.

c) Deklaratu gabeko oker, omisio eta aldaketak aurkitze aldera egiten diren ekintzak garatzea, eta kasuan kasuko aldaketa deklarazioak ofizioz tramitatzea.

d) Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalean dauden datuak, udalerrriaren barrenean diren ondasunei buruzkoak, haien titularreri jakinaraztea, bidezkoa bada.

e) Erregistroko datuak aldatzea ekartzen duten jarduketa guztiak Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari jakinaraztea.

22. artikulua. Udal katastroekin koordinatzea.

1. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala udal katastro guztien oinarria da eta katastroan eragina izan dezaketen datu guztiak hartan sartu beharko dira.

2. Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalean aldaketarik suertatuz gero eta horregatik katastroan eragina baldin badu, aldaketa izan duten ondasunak zein udal dermiotan dauden hartako udalerrriari emanen zaio gertatutakoaren berri.

3. Udal katastroetan aldaketarik sartu behar baldin bada eta datu horiek Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalekoak baldin badira azkeneko horretan sartu beharko dira lehenbizi, arestiko zenbakiak aipatzen duen bezala gertatutakoaren berri eman ondoren.”

Zioak: 3/1995 Foru Legeak Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren eta udal katastroen arteko dikotomia sortu bazuen ere, egia da bi horiek adierazpide biko errealitate bakartzat hartu beharra dagoela, koordinatu behar direnak eta aldi berean elkarri lotuta daudenak. Hori da, hain zuzen ere, estatuan garatzen ari den eredia. Alegia, Nafarroako katastro orokorrak udal katastroen batura izan behar du, eta udalei dagokie horiek mantentzea, eta Nafarroako Foru Komunitateari, berriz, horiek gaibegiratzea, 3/1995 Foru Legeko 15.a artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

29. bis ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko Foru Lege proiektuari Aralar parlamentu-taldeak aurkeztutako zuzenketa.

17. artikulutik 45.era bitartekoak aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua

“41. artikulua. Erregistroaren izaera publikoa.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala izaera publikokoa da bertako inbentarioan ondasun higiezinari buruz dauden datu guztiak ezagutzeko.

42. artikulua. Datuak kontsultatzea.

Erregistroko arduradunek behar bezala emanen dituzte aditzera arestiko artikulua aipatzen dituen datuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak esaten duen modu eta prozedura erabiliz.

43. artikulua. Ziurtagiriak.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko ondasunei buruzko datuen ziurtagiriak luzatuko ditu, ondorio fiskal nahiz administrazioak edo legeek agintzen dituzten besteetarako ondorioak izan ditzaten, hori guztia Jabetza Erregistroari dagozkionak ezertan ukatu gabe.

44. artikulua. Lurzati-zedula.

1. Lurzati-zedula Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalak luzatzen duen agiria da, bertan higiezin-unitate desberdinak agertzen dituena, beren ezaugarriak eta haiei dagozkien titular fiskalekin, eta horiek biltzen dituzten lurzatiaren adierazpen grafikoa emanaz. Lurzati-zedulan lurzati horren gainean dauden titular fiskal guztiek agertu beharko dute.

2. Lurzati-zedulen iraupen epea erregelamendu bidez finkatuko da. Nolanahi ere, epe hori iragan baino lehenago ondasun horietan aldaketarik suertatzen bada eta horregatik haien datuak aldatzen baldin badira, une horretantxe iraugiko da.”

Zioak: 3/1995 Foru Legeko 18. artikulua bidez katastroaren izaera publikoa ezarri zen (erregistro deitzen zen lege horretan). Izaera publi-

ko hori bat dator Jabetza Erregistroa ezarritakoa-rekin.

2003ko aurrekontuen legean aldatu egin zen, hein batean, izaera publikoa, eta halatan, katastroak galdu egin zuen publizitate horrek ematen zion izaera eta segurtasun juridikoa.

Kontraesana da katastroa ez izatea publikoa eta Jabetza Erregistroa, aldiz, publikoa izatea, koordinatuta baitaude.

Muga horren arrazoa izan daiteke, hain zuzen ere, Jabetza Erregistroak ez duela ematen katastro orokorrak interneten bidez edo baliabide digitalen bidez ematen duen informazioa, baina horrek ez du zertan urratu publizitatearen printzipioa.

Lege proiektuan datu pertsonalei eman nahi zaien erreserbak legedia orokorretik askozaz ere haratago doa, publizitatearen kaltetan.

Hori dela eta, 3/1995 Foru Legeko hasierako testua berreskuratzea proposatzen dugu guk, proiektuak berekin duen kontraesana ekiditeko; izan ere, mugatu egiten du Jabetza Erregistroaren gaineko publizitatea, baina aldi berean harekiko koordinazioa bilatzen du.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	